INFORMAZIO-OHARRA

Bitarteko funtzionarioak (egokitze-prozesua amaitu ondoren)

Barruti-judiziala: Donostia

NOTA INFORMATIVA

Personal funcionario interino (tras acoplamiento).

Partido judicial: Donostia

Bitarteko langileak birkokatzeko prozesuari buruzko oharrak:

- Errefortzu baldintzatuak soilik esleituko dira bete gabeko plazetan izendatzeko baldintzak betetzen dituen bitarteko langilerik ez badago.

- Aurreikuspenen arabera: bitarteko funtzionario guztiek 2026ko azaroaren 29an utziko dute lanpostua, eta, hala badagokio, izendapena 2026ko azaroaren 30ean formalizatu beharko dute.

- Aldi baterako ezintasun-egoeran dauden bitarteko funtzionarioek lanpostuen hautaketan parte hartu ahal izango dute. Hala ere, altan egon beharko dute izendapen berria sinatzeko zehazten den egunean.

  Bestela, ezin izango dute kontratua formalizatu eta lanuztea erabakiko da; kasu horietan, lan-poltsetan lanerako prest egoerara igaroko dira, zehaztutako iraupen-lehentasunen, lanaldi motaren eta eremu geografikoaren arabera.

- Prozesuan parte hartzera deitzen diren langileek, parte hartzeko eskaerarik aurkezten ez badute, edo, eskaera aurkeztu arren, destinorik lortzen ez badute, betetzen duten lanpostua utziko dute, eta lan-poltsetan eskuragarri egoerara igaroko dira, zehaztutako iraupen-lehentasunen, lanaldi motaren eta eremu geografikoaren arabera.

Consideraciones con respecto al proceso de recolocación del personal interino:

- Solo se adjudicarán las plazas de refuerzo condicionado siempre que no exista personal interino que cumpla los requisitos para ser nombrados en plazas sin ocupante.

- Previsiblemente: todo el personal funcionario interino cesará con fecha 29 de noviembre de 2026; y, en su caso, deberá formalizar su nombramiento el día 30 de noviembre de 2026.

- El personal funcionario interino que se encuentre en situación de IT podrá participar en la elección de puestos. No obstante, en el día fijado para la firma del nuevo nombramiento deberá estar de alta.

- En caso contrario, no podrá formalizarlo y se acordará su cese, pasando a situación de disponible en bolsas de acuerdo con las preferencias de duración, tipo de jornada y ámbito geográfico que tenga especificadas

- El personal que sea llamado a participar en el proceso y que no presente solicitud de participación o aun presentando solicitud no obtuviera destino cesará en el puesto que ocupa, y pasará a situación de disponible en bolsas, de acuerdo con las preferencias de duración, tipo de jornada y ámbito geográfico que tenga especificadas.

- Prozesuan parte hartu nahi ez duten bitarteko funtzionarioek eta, aurreikuspenen arabera, lanpostuaren esleipendun izango ez direnek, hartu gabe dituzten lizentziak eta baimenak eskatu beharko dituzte kontratua amaitu baino lehen.

- El personal funcionario interino que no desee participar en el proceso y aquel que considere que, previsiblemente, no será adjudicatario de puesto, deberá solicitar el disfrute de las licencias y permisos pendientes, antes de la fecha de cese.

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA